

BRUSELAKO ADIERAZPENA

EELBren seigarren biltzarra 2002ko urriaren 28an eta 29an egin da Bruselan, eta eskumen legegileak dituzten legebiltzarren eta eskualdeen barne-funtzionamendua izan da aztergai. Europako Konbentzioaren jardueraren inguruan duen jarrera ere finkatu du EELBk bertan. Konbentzio hori aitzakiatzat hartuta, EELBk Europako erakundeen etorkizunaren eta eskumen legegileak dituzten eskualdeen eta horietako legebiltzarren zereginaren inguruan duen ikuspuntua eguneratu du.

1. 2001eko urriaren 30eko Madeirako Adierazpena berrestea

EELBk Madeirako Adierazpenean egindako proposamenak berresten ditu, hain zuzen ere, 2001eko urriaren 30ean aho batez onartutakoak, eta bereziki honakoak:

- eskumen legegileak dituzten eskualdeak legitimatzea, Europako itunetan estatutu berezia egoztearen bidez;
- European parlamentarismoa eta eskualdeetako legebiltzarrek Europako Legebiltzarren eta legebiltzar nazionalen arteko lankidetzan parte hartzea sustatzea;
- Europako, nazioko nahiz nazioaz azpiko esparruei egotzitako eskumen legegileen banaketa zehatza arautzea;
- eskumen-gatazkaren bat sortuz gero eskumen legegilea duten eskualdeei Europako Justizia Auzitegiaren aurrean apelatzeko eskubidea aitortzea;
- Eskualdeetako Batzordea sustatzea, erakunde-estatutu baten bidez, eskualde-erakundeen artean dauden desberdintasunetara hobeto egokitze, eta Europako Justizia Auzitegiaren aurrean apelatzeko eskubidea aitortzea batzorde horri;
- Europako itunetan barne hartzea Oinarrizko Eskubideei buruzko Europako Gutuna, Nizan 2000ko abenduaren 7an aldarrikatutakoa.

2. Eskumen legegileak dituzten eskualdeetako lehendakarien biltzarren erabakiak

EELBk ontzat ematen ditu eskumen legegilea duten eskualdeetako lehendakariak Liejan 2001eko azaroaren 15ean egindako biltzarrean onartutako erabakiak, izan ere, 7 konstituzio-eskualdek eskumen legegileak dituzten konstituzio-eskualdeek Europar Batasunaren baitan duten zeregina indartzearen inguruan egindako adierazpen politikoa

onartzen dute. Aipatutako adierazpen hori Bruselan sinatu zuten 2001eko maiatzaren 28an¹ eta honakoak hartzen zituen barne:

- Eskualdeetako Batzordeak garapen politikoaren prozesuan izandako zeregina sustatzea: Eskualdeetako Batzordeak Europako erakundeen estatutu erabatekoa lortu behar du, eta beraz, aholku ematea baino harantzago joango diren eskumen politikoak izan behar ditu, baita Europako Justizia Auzitegiaren aurrean prozesuei hasiera emateko eskubidea ere;
- parlamentu nazionalak eta eskualdeetakoek hobeto hartu behar dute parte Europako prozesu politikoan eta harreman hobeak izan behar dituzte Europako Legebiltzarrarekin;
- eskumen-gatazkaren bat sortuz gero eskumen legegilea duten konstituzio-eskualdeek aukera izatea zuzenean jotzeko Europako Justizia Auzitegira.

EELBk bat egiten du eskumen legegileak dituzten Europako konstituzio-eskualdeek 2001eko azaroaren 15ean egindako adierazpenarekin eta erakunde-proposamenen aurkezpenarekin.

Funtzionamendu koordinatuaren esparruan, EELBk hurbiletik egin nahi die jarraipena etorkizunean eskumen legegileak dituzten konstituzio-eskualdeetako lehendakarien biltzarrei eta bilerei. EELBren Batzorde Iraunkorra da EELBren eta eskumen legegileak dituzten konstituzio-eskualdeetako lehendakarien biltzarreko batzordearen arteko topaketarako eta lankidetzarako foroa.

3. EELB eta Eskualdeetako Batzordea

EELB ohartzen da

- Liejako Europako Kontseiluan Eskualdeetako Batzordeari gonbidapena egin zaiola behatzaile gisa parte hartzeko, sei kideko ordezkari baten bidez, Europako Konbentzioaren jardueretan;
- Eskualdeetako Batzordearen baitan —hori da Europako erakundeetan eskualde-esparrua ofizialki ordezkatzeko duen organo aholku-emaile bakarra— funtzio garrantzitsuak betetzen dituztela eta funtsezko ekarpenak egiten dituztela eskumen legegileak dituzten eskualdeek;
- Eskualdeetako Batzordeak errespetatzen duela lankidetzaren estuagoa nahi duten eta beren politika europarra harmonizatu nahi duten eskumen legegileak dituzten eskualdeetako batzuen borondatea, eta eskualde horiei gonbitea egiten diela beren lankidetzaren egituraren baitan txertatzeko².

EELBk eztabaidan parte hartu nahi du, eta beraz, egoki iruditzen zaio Eskualdeetako Batzordeak bere bidez Europako Konbentzioko jardueretan eta Europako gobernatze onari buruzko liburu zuriaren inguruan egin beharreko hausnarketan parte hartzeko egindako proposamena.

¹ "Eskumen legegilea duten eskualdeek Europar Batasunean duten zeregina egonkortzerantz" izeneko Erabakia, eskumen legegileak dituzten eskualdeetako lehendakarien bigarren biltzarrean onartutakoa, Liejan, 2001eko azaroaren 15ean.

² 2001eko urriaren 26ko Eskualdeetako Batzordearen Kontseiluko adierazpena, "Eskumen legegileak dituzten eskualdeek prozesu politiko komunean duten zereginari buruzkoa" (CDR 191/2001fin F/D/E/RB/SG/cg/cb/cg/ib/di/ib).

EELBk uste du eskumen legegileak dituzten eskualdeen eta horietako legebiltzarren bozeramaile dela eta eskumen legegileak dituzten Europako eskualdeen artean izandako lankidetzaren informala baduela legitimotasun demokratikorik. Hortaz, EELBk zeregin hori egonkortzea proposatzen du, Eskualdeetako Batzordearen baitan eskumen legegileak dituzten eskualdeen funtzionamenduan parte hartzea bermatuko dion egitura sortzearen bidez.

EELBk Eskualdeetako Batzordearekiko lankidetzaren egituratzea proposatzen du, lankidetzaren modalitateak finkatuko dituen hitzarmena formalizatzearen bidez.

4. EELB eta Europako Legebiltzarra

EELBk gogoan hartu du 2002ko maiatzaren 2ko Europako Legebiltzarren Erabakia, Europar Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumenak mugatzearen ingurukoa, baita eskumen legegileak dituzten eskualdeetako legebiltzarrek eskualde-gaien gaineko eskumena duen batzordearen baitan ordezkariak propioa eta ohikoa izatea ahalbidetzeko beharrezko xedapenak Europako Legebiltzarren Araudian txertatzeko asmoa ere, aipatutako erabakiaren 40. puntuan adierazitakoa.

EELBk eskumen legegileak dituzten eskualdeetako legebiltzarren eta Europako Legebiltzarren arteko lankidetzaren indartu nahi du, Europako Legebiltzarren eta EELBk protokoloa formalizatzearen bidez, lankidetzaren modalitateak eta egitura arautzeko, hain justu ere. Protokolo hori EELBko kide diren eta protokoloa berretsiko duten eskualdeetako legebiltzarrei aplikatuko zaie.

5. Europaren etorkizuna aztertzearen lantaldea sortzea EELBren baitan

Europako Konbentzioaren inguruan EELBk duen funtzionamendua babesteko eta Europako gobernatze onari eta eskumen legegileak dituzten eskualdeek Europako etorkizuneko egituretan izan beharrezko zereginari eta lekuari buruzko eztabaidari funtsezko ekarpena egiteko helburuarekin, EELBk lantaldea sortuko du, bertan ordezkariak duten legebiltzarretako administrazioen eta ikerketa-zerbitzuen babesarekin. Honakoak izango ditu funtzio lantalde horrek:

- Konbentzioari eta 2004ko gobernuaren arteko biltzarra (GAB) prestatzeko lanei buruzko informazioa bideratzea eskualdeetako legebiltzarretara;
- gaur egungo eztabaidetan EELBk izango duen jarrera prestatzea;
- eskualdeetako legebiltzarren sentsibilizatzea Europar Batasunaren funtzionamenduaren eta Europari dagozkion erabakiak hartzerakoan eskualdeetako legebiltzarrek duten zereginaren inguruan.

6. Europako Konbentzioari buruzko adierazpena

Europako eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak

- Gaur egun Europako Legebiltzarrean eta Europako Konbentzioan eskumenen banaketaren eta eskumen legegileak dituzten eskualdeen eta horien legebiltzarren zereginaren inguruan dagoen eztabaida kontuan izanda,

- eta eskualdeetako legebiltzarrek EBko erakundeak eta herritarrak hurbiltzeko egin dezaketen ekarpena eta Europar Batasuna beren eskualde-osaketa egonkortzeko

konpromisoa hartua duten beste herrialde batzuetara hedatzeko interesa azpimarratuz, honakoa

ADIERAZTEN DUTE

- Ezinbestekoa da konstituzio-itun batean aitortzea eskualdeen eta horietako aginteen nortasun historiko, kultural eta politikoa nahiz lurraldearen eta erakundeen ingurukoa, Europar Batasuneko oinarrizko printzipio bailitza (6. artikulua).
- Saihestezina da Konbentzioaren lanen bidez formalki bermatzea gaur egun estatu kideetako batzuek onartutako eskualde-autonomiako baldintza bereziei eutsiko zaiela eta horiek babestuko direla, hori ezinbestekoa baita autonomia historikoak, gutxiengo nazionalak eta berezitasun geografiko eta kulturalak babesteko, Europar Batasunaren inspirazio-iturri den askatasun-ondarearen eta autogobernu-tradizioaren oinarri izaki.
- Eskumenak argi eta garbi egoztea ezinbestekoa da, subsidiarioritasun-printzipiotik abiatuta, Europako eskumenen mugak ezartzeko. Egozte horrek bermatuko du eskualde-ekimeneen garapen autonomoa, eta funtsezkoa izango da Batasuneko herritarrak bertako kide izateko sentimendua hobetzeko.
- Hedatutako Batasunak hobeto funtzionatu ahal izango du erronkei erabat europarra izango den ikuspegitik heltzeko moduan baldin badago.
- Garrantzitsua da subsidiarioritasun-printzipioa eta eskumenen banaketa errespetatzen direla bermatzea, "ex ante" kontrol politikoaren bidez, horrek eskualdeetako legebiltzarrek parte hartzea ahalbidetuko duelako aldi berean.
- Ezinbestekoa da eskumen legegileak dituzten eskualdeek Europako Justizia Auzitegira jotzeko eskubidea bermatzea.
- Garrantzitsua da eskualdeetako legebiltzarrek Europako Legebiltzarrarekin eta legebiltzar nazionalekin batera parte hartzea —batez ere Europako Erkidegoko Gaietan Espezializatutako Organoen Biltzarren (EEGEOB) baitan— etorkizunean legebiltzarren artean egin beharreko biltzarrean, baita Europako Legebiltzarrarekin lankidetzan zuzenean aritzea ere;
- Nahitaezkoa da Eskualdeetako Batzordearen zeregina balioestea, eskualdeetako legebiltzarrekin lankidetzan, horretarako autonomia eta eraginkortasun handiagoa emanaz EBko erakundeen esparruan.
- Prestatuta gaude parte hartzeko eta laguntzeko estatu kide berrietan politika desberdinak aplikatzeak berekin dakarren lege-transposizioa bermatzeko gai izango den eskualde-sistema ireki eta demokratikoa egonkortzeko lanetan.

Aho batez onartutakoa Flandesko Legebiltzarrean, 2002ko urriaren 29an, asteartea, Bruselan.